

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1366

AGINDUA, 2013ko otsailaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, eta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Eskolako Agenda 21 programak garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru laguntzak arautzen dituen (2013-2014 ikasturtea).

Lurrari buruzko Gailurra egin zenetik (Río de Janeiro-1992), garapen iraunkorra ingurumenaren aldetik lurraren etorkizunaren giltzatzat jotzen da. Heziketa ere funtsezko eragileztat hartzen da, jendearen jarrera aldarazteko, ingurumenaren arazoei eraginkortasunez heltzeko eta, aldi berean, oraingo eta geroko belaunaldien beharrak egoki asetzeko.

Gailur horretan sinatu zen agiri nagusienetako bat Agenda 21 da. Horrela deritzo Nazio Batuek garapen iraunkorraren bidean aurrera egiteko gomendatzen duten ekintza-planari. Bada, 1994an, eta Agenda 21 horrek toki-erakundeentzat ezarritako ildoei jarraituz, Aalborgeko gutuna sinatu zen, eta horrela hasi zen Europan kanpaina berezi bat, hain zuzen ere, euren lurraldeen garapen iraunkorraren alde egin nahi duten hiriena.

Euskal Autonomia Erkidegoan, garapen iraunkorraren aldeko apustua egin zen, Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren bitartez.

Bestalde, EAEko Garapen Iraunkorraren Ingurumen Estrategiak, 2002-2020 aldian (2002ko ekaina), garapen iraunkorraren bidean aurrera egiteko beharrezko baldintzatzat jotzen ditu, besteak beste, hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa.

Eskola Agenda 21 programa ikastetxearen kalitaterako eta iraunkortasunerako hezkuntza-programa bat da. Hezkuntza-komunitatearen partaidetzan dago oinarrituta, ikasleriari aparteko protagonismoa emanez eta udalerriaren garapen iraunkorrean lagunduz. Gainera, Eskolako Agenda 21ek proposatzen duen hezkuntza-praktikak ikasleari lagunduko dio, batetik, inguruan dituen ingurumen-arazoak ezagutzen eta horietaz jabetzen, eta, bestetik, modu arduratsuan gizarte justuago eta ekologikoki iraunkorrago baten alde egiten.

Garapen Iraunkorrari buruzko Munduko Goi Bileran (Johannesburg-2002), 2005-2014 bitarteko urteak «Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada» izendatzea onetsi zen.

Gainera, azpimarratu behar da, 2010. urtean, Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkadak jardunbide egokitze hartu zuela «Euskal Autonomia Erkidegoko Eskolako 21 Agenda» programa, iraunkortasuna euskal hezkuntza-sistema formalaren ardatzetako bat izatea lortzeagatik. Aitorpen horrek asko lagundu zion ordura arte egindako bideari, eta egiteko dagoen biderako eragingarria izan zen.

EcoEuskadi 2020ko Euskadiko Garapen Iraunkorrerako Estrategiak (2011ko uztaila) adierazten du kalitatezko hezkuntza-sistema eta balio-sistema eraiki beharra dagoela, iraunkortasuna barne dela arlo guztietan.

Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Konferentzian (Rio de Janeiro, 2012), garapen iraunkorrerako hezkuntza sustatzea eta garapen iraunkorra modu aktiboagoan hezkuntzan sartzea ebatzi zen, Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkadatik harago.

Konferentzia horretan, bi eskaera egin zitzairen hezkuntza-instituzioei: batetik, aintzat har zezatela iraunkortasuna kudeatzeko jarduera ona aurrera eraman zitekeela euren ikastetxe eta komunitateetan, betiere, ikasle, irakasle, tokiko kolaboratzaile eta abarren partaidetza aktiboarekin, eta, bestetik, garapen iraunkorrari buruzko hezkuntza eman zezatela, irakasgai gisa.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako sailburuordeak eta Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeak 2012-2013 ikasturtean zehar emandako ebazpenek, hain zuzen ere, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako, Bigarren Hezkuntzako institutueta eta Goi-mailako Lanbide Heziketako institutu espezifikotako antolamenduari buruzkoek, ikastetxe horiek hertsatu zituzten euren antolaketako bitartekoetan sartzera iraunkortasunarekiko konpromisoa, bai hezkuntza-alderdiei dagokienez (IHP, IIP, AJA), bai kudeaketa-jarduerei dagokienez. Horrekin lortu nahi dena da ikasleak prestatzea heldutasunean sartzen direnean gai izan daitezen naturaren kontserbazioarekiko eta garapen iraunkorrekiko konprometituta bizitzeko (urriaren 16ko 175/2007 Dekretua, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen duena).

Horregatik guztiagatik, hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazio eremuan lehentasuneko helburua da eskola-esparruko esku-hartzea bultzatzea, ingurumen-gaiei buruzko informazioa eta gaikuntza emateko eta, horrela, garapen iraunkorreraino heltzeko beharrezkoa den aldaketa eragiteko balioetan, jarretan eta jokabideetan.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak, hezkuntza-sistema formalaren Iraunkortasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Planean oinarrituta, ezinbesteko jotzen du erakundeei diru-laguntzak ematea, ikastetxeetan iraunkortasunerako hezkuntzako berariazko proiektuei ekiteko; izan ere, proiektu horiek, batetik, ikastetxeko hezkuntza- eta curriculum-proiektuetan nahiz geletako programazioan ikuspegi hori sendotuko dute, eta, bestetik, ikasleak edo hezkuntza-komunitateak garapen iraunkorrean konprometitzeko gaituko dituzten kontzientzia, gaitasuna, ezagupena eta balioak garatzen lagunduko dute.

Bestalde, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, iraunkortasunerako hezkuntza eskola-egitarauetan sartu beharra dagoela iritzita, egoki deritza ikastetxeek eta irakasleek ingurumen-arloan garatzen duten lana aintzat harteari.

Horren ondorioz, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hauxe

EBAZTEN DUGU:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da, norgehiagokako prozeduraren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei 2013-2014 ikasturtean Eskolako Agenda 21 programa garatzeko eman beharreko diru-laguntzak arautzea.

2. artikulua.– Diru-baliabideak.

Xede horretarako, gehienez ere, zazpiehun eta berrogeita hamar mila (750.000) euro bideratuko dira.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoek zein itunpeko pribatuak jaso ahal izango dituzte agindu honetan jasotzen diren laguntzak.

2.– Erakunde onuradunak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Laguntzen eskatzaileek betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, horretarako eskatzaileen baimenik behar izan gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina 50.3 artikulua bigarren paragrafoak ezarritakoa aplikatuz (Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearen azken xedapenetatik hirugarren gaineratutakoa).

3.– Erakunde onuradunei diru-laguntza eman eta ordaindu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomiadunek antzeko beste diru-laguntza batzuk eman ondoren, haiek itzultzeko edo zehatzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da.

4.– Erakunde eskatzaileak ezin du diru-laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen duen zigor administratibo edo penalik izan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetatik seigarrenean ezarritako zehapenak barne.

4. artikulua.– Eskolako Agenda 21 proiektuaren eskakizunak.

1.– Deialdi honen ondorioetarako, iraunkortasunerako hezkuntza-proiektu bakar bat prestatuko da. Ikastetxeetan egiten diren jarduerak guztiak bilduko ditu proiektu horrek, eta hiru alderdi izango ditu: partaidetza, kudeaketa iraunkorra eta curriculum-berrikuntza.

2.– Proiektuek gutxienez hiru fase izango dituzte: a) Egoeraren diagnostikoa, udalerrian eta/edo eskualdean aukeratutako gaiaren inguruan; diagnostiko horretatik, hobekuntza-helburu eta ebaluazio-adierazle batzuk aterako dira hiru ardatzetarako: curriculum-berrikuntza, kudeaketa eta partaidetza. b) Ekintza-plana. c) Aukeratutako adierazleen arabera ebaluazioa.

3.– Proiektuak ikastetxeko hezkuntza- eta curriculum-proiektuetan eta ikastetxeko urteko planaren barruan txertatua egon behar du.

4.– Oinarrizko Hezkuntza irakasten den ikastetxeetan (Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), proiektuan, gutxienez, etapetako batek parte hartuko du, eta etapa horretako ikasle guztiek inplikaturik egon beharko dute.

5.– Ingurumen-batzorde bat eratuko da, estamentu guztiek osatutakoa (irakasle, ikasle, guraso, irakaskuntzaz kanpoko pertsona eta abarrek). Batzorde horren eginkizun nagusia izango da proiektuaren jarraibideak finkatzea, eta horien jarraipena eta ebaluazioa egitea, hartutako konpromisoak eta egindako hobekuntza-proposamenei dagokienez.

6.– Proiektuaren garapenean zehar antolatzen diren udal-foroetan ere parte hartuko du ikastetxeak, eta horren koordinatzaile bat izendatuko du. Bermatuko du, gainera, koordinatzaile horrek honako hauetarako behar diren bitartekoak edukitzea: a) EA21 proiektuaren koordinatzaileei berriaz zuzendutako prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea. b) Proiektuaren koordinazioarako denbora eta bitarteko informatikoak edukitzea. c) Beste ikastetxe batzuekin batera, egokitzen diren koordinazio-bileretan parte hartzea.

7.– Ikastetxeak, bere antolamendu-autonomiaren barruan, bermatu egingo du proiektuaren koordinatzailearen eta proiektuaren talde sustatzailearen ordutegiak egokitu egingo direla, proiektuan dituzten egitekoekin bateratu ahal izateko. Ikastetxe publikoetan, beti beteko dira Hezkuntza,

Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak –irakaskuntzako etapa eta modalitate bakoitzerako– ikasturtearen hasieran ematen dituen zirkularretan jasotako arauak.

8.– Proiektuan parte hartzen duten irakasleek Eskolako Agenda 21en garapenak –aukeratutako gaiaren inguruan– eskatzen dituen hausnarketa, prestaketa eta ataza-antolaketari eskainiko diote beren ordutegiaren zati bat, alegia, ikastetxeko planean prestakuntzarako eta programazio-prestaketarako gordetako ordutegiaren zati bat.

9.– Ingurumen-hezkuntzako eskolaz kanpoko ikastegiak eta ingurumen-ondarea ezagutaraztera zuzendutako ibilbideak edo bisitak Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egin beharko dira beti, diru-laguntza jaso ahal izateko.

10.– Diru-laguntza honen xede diren ekintzak 2013-2014 ikasturtean garatuko dira.

11.– Eskabideak aurkezterakoan, ikastetxeek zehaztu beharko dute zein jardueretarako eskatzen duten diru-laguntza, aurreikuspen moduan (A3 eranskina).

12.– Eskaera egin aurretik, klaustroak eta ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak, edo, bestela, haren Batzorde Iraunkorrak, proiektuaren berri izan beharko dute, eta harekiko adostasuna azaldu (A5 eta A6 eranskinak).

Ordezkaritza Organo Gorena eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen bildu ezin bada, zuzendariak eskaera aurkeztu ahal izango du, Batzorde Iraunkorrari kontsultatu ondoren, betiere proiektuaren onespena jasotzen duen Eskola Kontseiluaren akta 2013ko ekainaren 14a baino lehen Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzara bidaltzen bada.

13.– Proiektuak garatzeko, ikastetxeek ingurugelaren lankidetzak, prestakuntza, aholkularitza eta laguntza teknikoa izango dute. Deialdi honetan, proiektu bakoitzari esleitu zaio, gutxienez, dagokion ingurugelako aholkulari bat.

14.– Eskatutako aurrekontua proposatutako jardueretara egokitu beharko da. Era berean, aurkeztutako gastu guztiei aurre egiteko behar adinako diru-sarrerak badaudela egiaztatuta beharko da (A4 eranskina).

5. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Honako gastu hauek diruz lagunduko dira, kasu bakoitzean zehazten diren ehuneko eta gehiezkoko zenbatekoen arabera:

1.– I. kategoria.– Bisitak eta egonaldiak. Emandako diru-laguntzaren % 60 arte.

1.1.– Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen hezkuntzako ekipamenduetan egingo diren egonaldiak. Joan-etorrietako gastuak, sarrerak eta tailerrak.

1.2.– EAEko ingurumen-hezkuntzako ekipamenduetara egingo diren bisiten gastuak, betiere, Eskolako Agenda 21ean lantzen diren gaiekin eta Ingurumenari buruzko Gazteen Konferentzian (CONFINT) parte hartzearekin zerikusia baldin badute.

2.– II. kategoria.– Kudeaketa-hobekuntza. Emandako diru-laguntzaren % 50 arte.

2.1.– Energetikoa. Presentzia-sentsoreak, energia-kontsumoaren neurgailuak, tenporizado-reak, termostatoak, pila-kargagailuak, etengailudun konexio-blokeak, kontagailuak, berokuntza hodian eta leihoen isolamenduak instalatzeko gastuak, eta argiak kontsumo baxu egiaztatuta duten beste argi batzuek ordezkatzeko gastuak.

2.2.– Uraren kudeaketa. Zurrusta-haustekoak, aurrezpen-eiektoreak, uraren jaurtitze-denboraren murrizgailuak, dutxetarako murrizgailuak, komunetarako aurrezpen-sistemak, kontagailuak eta euri-urak berrerabiltzeko gordailuak instalatzeko gastuak.

2.3.– Mugikortasuna. Bizikleta- eta patinete-aparkalekuak instalatzeko gastuak; oinezko mugikortasun-sistemetan parte hartzen dutenen eta monitoreen ekipamendu pertsonala (oin busa).

2.4.– Hondakinen kudeaketa. Birziklatzeko edukiontzien eta konpostontzien erosketa-gastuak.

2.5.– Zarataren kudeaketa. Altzarien hanketarako itsasgarriak edo gailuak, isolamendu akustikoak.

2.6.– Eskola-baratzeko inbertsioak. Ureztatze-instalazioak, berotegiak, baratze-alorrak eraikitzea, tresnak gordetzeko estalkiak, eta abar.

3.– III. kategoria.– Motibazioa-sentsibilizazioa-partaidetza-koordinazioa-komunikazioa.

3.1.– Motibazioa. Lehiaketa-gastuak (gehienez ere, 100 euro saritan, lehiaketako); egun edo aste adierazgarriak ospatzea (gehienez ere, 200 euro); CO₂-aren isurtzeen konpentsazio-gastuak (gehienez ere, 100 euro); boluntarioak aintzatestea (gehienez ere, 200 euro).

3.2.– Sentsibilizazioa. Sentsibilizazio-jarduerak eragindako gastuak: kartelak jartzea, «roll up» eta antzekoak.

3.3.– Partaidetza, koordinazioa, barne-komunikazioa. «Txoko berdeak» eragindako gastuak, talde berdearen identifikatzaile edo bereizgarriak, eskolen arteko foroetara eta udal-foroetara joateagatiko dietak, ingurugeletako koordinazio-bileretara joateagatiko dietak.

3.4.– Kanpoko komunikazioa: ikastetxeak –txostengile moduan– parte hartzen duen udal-foroetan eta kongresuetan aurkezpenak egiteko materialak.

4.– IV. kategoria.– Ikastetxeko langileen prestakuntza.

4.1.– «Topaketa» Ingurumen Hezkuntzako Urtean Behingo Topaketara joateak eragindako gastuak.

4.2.– Agenda 21eko gaiekin lotuta, ikastetxean –bertako langileentzat– ematen diren ikastaro edo hitzaldiak.

4.3.– Eskolako Agenda 21ekin lotura duten ikastaroen matrikulak eta bertaratzeko dietak.

4.4.– Eskolako Agenda 21eko gaiekin zerikusia duten liburuak, DVDak, aldizkariak –paperezkoak zein digitalak–; gehienez ere, 100 euro.

5.– V. kategoria.– Tailer didaktikoak.

5.1.– Eskola-baratzeari egitea eta mantentzea. Hazi, lanabes eta landare gazteak eskuratzeko gastuak.

5.2.– Antzerki-emanaldiak edo antzekoak, betiere, Eskolako Agenda 21ekin lotuta baldin badaude.

5.3.– Beste tailer batzuk kontratatzea eta/edo horietarako materiala: habia-kutxak, zuhaitzen identifikazioa, sendabelarrak, usain-belarrak edo bestelakoak, lorategi zintzilikariak, herbarioak, haziak, akuarioak, terrariumak, bizikleta-konponketa, birziklatzea, energia berriztagarriak, hitzaldiak edo beste edozein tailer, betiere, Eskolako Agenda 21ekin lotura baldin badute.

5.4.— Landa-behaketako gailuak eta ingurumen-aldagaiak neurtzeko tresnak, proposatutako ekintzetan erabiliko direnak (gehienez ere, 200 euro): eskuko lupak, prismatikoak, euri-neurgailuak, sonometroak, luxometroak, higrometroak, konduktibimetroak, pHmetroak, eremu elektromagnetikoen eta irrati-maiztasunen neurgailuak.

6.— Material suntsikorra. Material suntsikortzat hartuko dira proiektuaren jarduera burutzeko beharrezkoak diren gastu hauek: papera, tonerra, tintazko kartutxoak, fotokopiak, margoak, erro-tulagailuak, zela, karpetak, argazkiak eta antzekoak. Saiatu behar da material horiek guztiak erosketa berdearen bidez eskuratzen. Emandako diru-laguntzaren % 10 arte eskuratu ahal izango da gastu horietarako; ikastetxeko, gehienez ere, 300 euro emango dira, eta gastu horiek justifikatu beharrik ez da izango.

6. artikulua.— Diru-laguntza ezin jaso duten jarduerak.

Ez dira diruz lagunduko aurreko artikuluan agertzen ez diren gastuak, ezta hauek ere:

a) Eskolako Agenda 21 proiektuarekin zuzenean lotuta ez daudenak.

b) Irakasleek proiektuaren garapenean erabiltzen dituzten orduen kostua, itunpeko ikastetxe pribatuetan.

c) Erosi behar izan diren material, lanabes edo altzariak, nahiz eta proiektua azkenean ez den garatu.

d) Ostatu- eta mantenu-gastuak, ikastetxeaz kanpoko egonaldiei dagozkienak.

e) Ordenagailuak, argazki-kamerak, bideo-kamerak edo beste material batzuk, informatikakoak zein ikus-entzunezkoak.

7. artikulua.— Eskabideak aurkeztea.

1.— Eskabideak aurkezteko epea 2013ko martxoaren 18tik maiatzaren 10era artekoa izango da (biak barne).

2.— Eskabideak Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzan (Donostia kalea, 1, Lakua 2- 2. solairua-01010 Vitoria-Gasteiz), Zuzenean zerbitzuko Herritarren Arretarako Puntuetan eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein erregistrotan aurkeztu beharko dira, eta Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendariari zuzendu beharko zaizkio.

3.— Agindu honen xede diren diru-laguntzak lortu nahi dituzten erakunde eskatzaileek eskabide-orriak (A1, A2, A3, A4, A5 eta A6) behar bezala beteta aurkeztu beharko dituzte.

4.— Eskabide bat baino ez da onartuko ikastetxe bakoitzeko.

5.— Izaera Pertsonaleko Datuak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, eskatzaileei jakinarazten zaie ematen dituzten datuak fitxategi batean bilduko direla. Fitxategi horren helburua da diru-laguntzen deialdi hau eta gaiarekin lotutako beste edozein administrazio-espeditente ere kudeatzea. Fitxategiaren arduraduna Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza da. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubideaz sail bereko Zerbitzu Zuzendaritzan baliatu ahal izango da. Horretarako, helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea, 1-01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

8. artikulua.— Aurkeztutako eskabidearen akatsak konpontzea.

Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak eskabidean akatsen edo zehazgabetasunen bat aurkitzen badu, erakunde eskatzaileari jakinaraziko dio, eta akatsa edo zehazgabetasuna zuzentzeko hamar eguneko epea emango dio. Jakinarazpenean, adierazi egingo da erakundeak zuzenketa egin ezean eskabideari uko egin diola ulertuko dela, betiere aldez aurretik ebazpena emanda, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan jasotakoari jarraituz.

9. artikulua.— Diru-laguntzak kudeatzeko organoa.

Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumen Sailburuordetzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan jasotako laguntzak kudeatzeko eginkizunak betetzea.

10. artikulua.— Balioespen Epaimahaia.

1.— Eskabideak balioespen-epaimahaiak aztertuko ditu. Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

- Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendariak edo hark eskuordetzen duenak.
- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak edo hark eskuordetzen duenak.
- Ingurumen Sailburuordetzako teknikari batek, zeina Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendariak izendatuko baitu.

2.— Balioespen-epaimahai horrek egingo duen balioespen-aktan honakoa jasoko da: onartutako eskabideak, baztertutako eskaerak, eman beharreko gehieneko kopurua eta eskabide bakoitzari eman beharrekoaren gaineko proposamena.

11. artikulua.— Diru-laguntzak esleitzeko eta kuantifikatzeko irizpideak.

1.— Programa garatzeko diru-laguntza eskatzen duten ikastetxe publiko eta pribatu itunpeko guztiek jasoko dute diru-laguntza, baldin eta agindu honetan jarritako baldintza guztiak betetzen badituzte.

2.— Diru-laguntza bakoitzaren gehieneko zenbatekoak ezingo du erakundeak eskatutakoa gainditu, ezta ondorengo gehieneko kopuruak ere:

- 5.000 euro, Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria indarrean duten ikastetxeentzat.
- 3.000 euro, gainontzeko ikastetxeentzat.

3.— Ezarritako gehieneko zenbatekoak kontuan harturik, ondorengo irizpideen arabera egingo da diru-laguntzaren kalkulua:

a) Ikastetxe bakoitzak Eskola Agenda 21 proiektua garatzeko bostehun (500) euroko gutxieneko kopurua jasoko du.

b) Horretaz gain, Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria indarrean duten ikastetxeek bostehun (500) euro jasoko dituzte. Puntu hori ofizioz egiaztatuko da.

c) Aurreko bi idatzi-zatietan adierazitako zenbatekoak deialdiaren guztizko zenbatekoari kendu ondoren lortzen den zenbatekoa proportzionalki banatuko da, jarraian adierazten den formulari jarraikiz lortutako puntuazioaren arabera:

– Ikastetxe bakoitzari emango zaio Eskolako Agenda 21 proiektuan –2013-2014 ikasturtean– parte hartu behar duten ikasleen kopurua adina puntu. Kopuru hori zuzendu egingo da, estatistika-dokumentazio ofizialaren arabera, eskabide-epea amaitzen den unean.

– Aurreko puntuazio horri ikastetxeak duen bekadun kopurua bi halakotu ondoren lortzen den zenbatekoa batuko zaio, estatistika-dokumentu ofizialaren arabera, eskabide-epea amaitzen den unean.

– Ikastetxe bakoitzari emandako puntuazioa faktore konstante batez biderkatuko da, eta faktore hori lortzeko, banatzeko gelditzen den guztizkoa zatituko da ikastetxe guztiei emandako puntuen baturarekin.

12. artikulua.– Diru-laguntzaren bateragarritasuna.

Deialdi honen xede diren diru-laguntzak beste diru-laguntza batzuekin bateragarriak izango dira, betiere jasotako kopuru osoak jarduerarako finkatutako aurrekontuaren % 100 gainditzen ez badu. Bestela, gehieneko mugaraino gutxituko litzateke diru-laguntza.

13. artikulua.– Ebazpena, errekurtsoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitate-prozedura.

1.– Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendariak, horretarako bildutako balioespen-epaimahaiak egindako proposamena kontuan izanik, eta epaimahaiaren balioespen-aktaren bidez, gehienez ere sei hilabeteko epean ebatziko du diru-laguntza ematea ala ez, agindu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera, eta kasuan kasuko ikastetxeei jakinaraziko die diru-laguntza eman izana. Ebazpena, ondoren, informazio gisa, EHAAen argitaratuko da. Epea amaitu eta gero, aipatutako jakinarazpena egin ez bada, eskatutako diru-laguntza ezetsi egin dela uler daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, lege horrek Administrazioari espresuki ebazteko ezartzen dion betebeharraren kalterik gabe.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenak ez dio administrazio-bideari amaierarik ematen; izan ere, ebazpen horren aurka, interesdunek gorako errekurtsoa jarri ahal izango diote Ingurumeneko sailburuordeari; hilabeteko epea izango dute horretarako, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

14. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Diru-laguntza onartzea. 13. artikuluan aipatutako agiria, alegia, diru-laguntza eman dela jakinarazten duen agiria jaso eta 10 eguneko epea igaro ondoren, ikastetxe esleipendunek diru-laguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badiote, hura onartu dutela ulertuko da.

2.– Kontrol Ekonomikorako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak –laguntzen xedearen fiskalizazio funtzioak betez– eskatutako informazio guztia ematea.

3.– Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzari idatziz eta lehenbailehen jakinaraztea –edozein arrazoi dela medio– proiektuan egin diren aldaketak, aldaketa horien onarpena eskatzeko. Ez da onartuko 2014ko martxoaren 14a baino lehen jakinarazi ez den aldaketarik.

Ikastetxeek, aldaketak jakinarazteko, A7 inprimakiko eredua erabili ahal izango dute. Halaber, A3 eta A4 inprimakiak berriro aurkeztu behar dituzte, datu berriak jaso ditzaten.

4.– Zabalkunde-karteletan eta -materialetan, eta egiten den publizitate orotan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren logotipoak sartzea.

5.– Genero-ikuspegia sartzea egiten diren dokumentu eta ekintzetan, eta hizkuntzaren eta irudiaren erabileran egon daitezkeen diskriminazio-elementuak ekiditea.

6.– Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari lagatzea –doan eta ez modu eskusiboan– aurkeztutako dokumentazioan jasotako informazio teknikoa eta pedagogikoa erabiltzeko eskubidea, dokumentazio hori Ingurumen, Lurralde Politika Sailaren informazio-sistemetan txertatzeko, eta edozein baliabide eta formatu bibliografiko, ikus-entzunezko eta informatikotan, nahiz teknikaren erabilerak ahalbidetzen dituen bestelakoetan hedatzeko eta/edo argitaratzeko. Jabetza intelektuaren eskubideak errespetatuko dira beti.

7.– Diru-laguntza justifikatzea ondorengo artikuluan arautzen den moduan.

15. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea.

1.– Ikastetxe onuradunek diru-laguntza justifikatu behar izango dute 2014ko ekainaren 20a baino lehen, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren aurrean (Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz, Araba), justifikazio kontu sinplifikatuaren bidez.

2.– Diru-laguntzak justifikatzeko, balio juridikoa izango dute B1, B2, B4, B5 eta B6 eranskinek, honako agiri hauek ere gehituta:

a) Justifikazio-memoria bat, zeinean jaso beharko baitira, gutxienez, B3 eranskinean zerrendatutako alderdiak. Ikastetxeek, nahi izanez gero, euskadi.net-en eta ingurugeletan eskuragarri egongo diren ereduak erabili ahal izango dituzte.

b) Proiektuan sortutako materialen kopia (ahal izanez gero, formatu digitalean).

c) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, non ondokoak identifikatzen baitira: hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen-data eta hala badagokio, ordainketa-data.

d) Gastuen faktura originalak edo kopia konpultsatuak, gutxienez, diruz lagundu den zenbatekoari dagozkionak, betiere, material suntsikorrari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa kenduta, eta kontuan hartuta kategoria bakoitzerako 5. artikuluan ezarritako diru-laguntzen gehienezko proportzioa. Fakturretan agertzen den kontzeptuak behar bezala zehaztua egon behar du, diruz lagundu daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin direnak bereizi ahal izateko.

3.– Ikastetxeek, fakturen kopiak konpultsatzeko, bide hauek erabili ahal izango dituzte:

a) Kopia-joku bat entregatzea, justifikazioarekin eta faktura originalekin batera, Ingurumen, Lurralde Politika Saileko erregistroetan edo Zuzenean-eko bulegoetan. Kopia horiek konpultsatu ondoren, itzuli egingo zaizkie faktura originalak.

b) Faktura originalak eta konpultsatzeko kopia-joku bat –justifikazioarekin batera– Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzara bidaltzea, bai posta ziurtatuaren bidez, bai EAErako diren idazkiak aurkezteko lankidetzaz hitzarmena sinatu duten udalen erregistroetan entregatuz. 2012ko azaroaren 20an, udal horiek dira B7 eranskinean zerrendatzen direnak. Faktura originalak ikastetxera bidaliko dira behin kopiak konpultsatu direnean.

4.– Memoriatik eta sortutako materialetatik, era berean, kopia bat bidaliko zaio kasuan kasuko ingurugelari.

5.– Ausazko laginketa sinplearen bidez, legeak ezarri legez, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak ondo iritzitako onuradunei eskatuko dizkie jardueraren gastu guztien egiaztagirak, diru-laguntza behar bezala erabili dela egiaztatzeko.

6.– Justifikaziorako epea amaitu bada, eta erakundeak ez baditu aurkeztu kasuan kasuko agiriak, hogei eguneko epea du agiriok aurkezteko, eta jakinaraziko zaio epe hori amaituta aurkezten ez baditu, justifikatzeko beharra ez duela bete ulertuko dela, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53. artikuluan ezarritako ondorioak pairatuko dituela.

16. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Onartutako diru-laguntzaren ordainketa bi aldi hauetan egingo da:

- Onartutako zenbatekoaren % 80, diru-laguntza onartu ondoren, agindu honen 14.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.
- Gainerako % 20a, berriz, justifikazioko izapidea behar den bezala bete ondoren ordainduko da.

17. artikulua.– Hezkuntza berriztatzeako proiektuan irakasleek izandako partaidetzaren ziurtagiria.

1.– Hezkuntza Berriztatzeako zuzendariak ofizioz ziurtatuko du irakasle koordinatzaile eta talde sustatzaileak Eskolako Agenda 21 proiektuetan izandako partaidetza. Proiektu horiek balioespen positiboa jaso behar dute, eta haietan gutxienez 30 ordu eman direla ziurtatu beharko da.

2.– Ziurtapena ikastetxeko Zuzendaritzak bermatutako datuetan oinarrituko da. Datu horiek agindu honen 14. artikuluan aipatzen den justifikazio-izapidetako inprimakian jasoko dira. Inprimaki horretan, proiektuaren irakasle koordinatzailea eta talde sustatzaileko kideak jasoaraziko dira (B2 eranskina).

3.– Pertsona bati, ikasturte berean, ezin izango zaio 90 ordu baino gehiago egiaztatu, honako kontzeptu hauetan: prestakuntza-proiektuak eta hezkuntza-berrikuntzako proiektu edo ekintzak, EA21eko programak, edo osasun-sustapena eta -hezkuntza.

18. artikulua.– Diru-laguntzak jasotzeko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko aintzat hartutako baldintzen aldaketa orok, betiere diru-laguntzaren xedea betetzat jotzen denean, eta, hala dagokionean, beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk aldi berean beste diru-laguntza batzuk lortu izateak diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake. Ondorio horietarako, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak dagokion likidazio-ebazpena emango du, emandako diru-laguntzaren kopurua doitzeko, eta, hala dagokionean, lortutako gehiegizko zenbatekoa itzultzeko.

19. artikulua.– Ez betetzea eta itzultzeko jardunbidea.

Onuradunak Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarengandik jasotako diru-laguntza eskatu eta eman zen xederako erabiltzen ez badu, diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera burutzen ez badu, diru-laguntza zertarako eman zen helburu horrexetarako izan dela justifikatzen ez badu edo, oro har, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, agindu honetan edo emakida-erabakian ezarritako betekizunak betetzen ez baditu, itzuli egin beharko ditu bai emandako eta jasotako diru-

-kopuruak bai haiei legez ezar dakizkiekeen interesak, betiere arau horretan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta haiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan jasotako prozedurari jarraituz.

20. artikulua.— Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako beraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari eta/edo Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Agindu honetan berariaz jasotzen ez den guztirako, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan jasotako oharpenak dira ezartzekoak.

Bigarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 27a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

A1

ESKABIDE-ORRIA ESKOLA AGENDA 21 PROIEKTUA

2013-2014

Ikastetxearen izena:	
Sozietatearen izena:	IFK:
Publikoa ☐	Pribatu itunpekoa ☐
Hezkuntzako kodea:	
Helbidea:	
Tel.:	Faxa:
E-maila:	
Lurraldea:	Udalerria:
Herria:	Posta-kodea:
Proiektuaren gaia:	Eskatutako diru-laguntza:
Koordinatzailearen izen-abizenak:	
Koordinatzailearen e-maila:	

Goian aipatutako ikastetxeak:

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak 2013-2014 ikasturterako argitaratutako diru-laguntza deialdian parte hartzea eskatzen du, eta proiektu horretarako datuak zehatzak direla egiaztatzen du.
- Erakunde onuradunak adierazten du ez dagoela sartuta diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren batean edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen batean, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetatik seigarrenean ezarritakoetan ere.

Horretarako, eta ordezkari gisa, ikastetxeko zuzendariak eskabide hau sinatzen du.

Izen-abizenak
Ikastetxeko zuzendariaren izenpea eta zigilua

.....(e)n, 2013ko ren ... (e)an.

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

Eusko Jaurlaritza.

Izaera Pertsonaleko Datuak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, eskatzaileei jakinarazten zaie ematen dituzten datuak fitxategi batean bilduko direla. Fitxategi horren helburua da diru-laguntzen deialdi hau eta gaiarekin lotutako beste edozein administrazio-espeditente ere kudeatzea. Fitxategiaren arduraduna Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza da. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubideaz sail bereko Zerbitzuen Zuzendaritzan baliatu ahal izango da. Horretarako, helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea, 1-01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Erantsi beharreko dokumentazioa.

- ☐ 1.– A1 inprimakia: Eskabide-orria.
- ☐ 2.– A2 inprimakia: Proiektuan parte hartzen dutenen laburpen fitxa.
- ☐ 3.– A3 inprimakia: Proiektuaren ezaugarriak.
- ☐ 4.– A4 inprimakia: Datu ekonomikoak (aurrekontua).
- ☐ 5.– A5 inprimakia: Klaustroaren Akta, eskola-klaustroak Eskolako Agenda 21 proiektuaren berri duela eta proiektu horrek ikastetxearen barne-antolamenduan izan ditzakeen ondorioak bere gain hartzen dituela jasoarazten duena.
- ☐ 6.– A6 inprimakia: Ordezkaritza Organo Gorenaren Ziurtagiria: Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak proiektuaren berri baduela eta harekin ados dagoela adierazi beharko du. Ziurtagiririk eman ezean, ekainaren 14a baino lehen bidaltzeko konpromisoa erantsiko da.

A2

PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTENEN LABURPEN FITXA

	Ikasleak							
	HH	LH	DBH	Batx.	Besterik	Sexua		Guztira
Talde kopurua								
Ikasle kopurua ikastetxean						G		
						E		
Ikasle kopurua proiektuan (*)						G		
						E		

G: gizonezkoak.

E: emakumezkoak.

	Irakasleak						
	HH-LH	BH	HB	HHI	Sexua		Guztira
Irakasle kopurua ikastetxean					G		
					E		
Irakasle kopurua proiektuan (*)					G		
					E		

G: gizonezkoak.

E: emakumezkoak.

(*) Irakasleak proiektuan. Beren jarduera profesionalen ikastetxeko Eskolako Agenda 21 gauzatzen laguntzen dutenak.

Ikasleak proiektuan. Beren ikastetxeko Eskolako Agenda 21 proiektuan aurreikusten diren irakaskuntza-ikaskuntzako ekintzetan parte hartzen dutenak.

Proiektuaren koordinatzailea						
NAN	Izena	1. abizena	2. abizena	Sexua		Jardungo den ordu kopurua (*)
				G	E	

G: gizonezkoak.

E: emakumezkoak.

(*) Proiektuan jardun den ordu-kopurua guztira (ikastaroko guztizko kontaketa).

A3

PROIEKTUKO EDUKI EKONOMIKOKO JARDUERAK

2013-2014 ikasturteko gaia:

Aurreikusitako jarduerak:

[illegible]

(*) Kategoriak:

- I.– Bisitak, egonaldiak.
- II.– Kudeaketa-hobekuntza (energetikoa, ura, mugikortasuna, hondakinak, zarata, eskola-baratzeko inbertsioak).
- III.– Motibazioa-sentsibilizazioa-partaidetza-koordinazioa-komunikazioa.
- IV.– Zentroko langileen prestakuntza.
- V.– Tailer didaktikoak.

A4

DATU EKONOMIKOAK (AURREKONTUA)

2013-2014 proiektuaren guztizko aurrekontua:

A) Aurreikusitako sarrerak	Zenbatekoa
1.– Eusko Jaurlaritzari eskatutako diru-laguntza	
2.– Beste diru-laguntza publiko batzuk	
3.– Beste sarrera batzuk	
Sarrerak, guztira	

B) Aurreikusitako gastuak	Zenbatekoa
1. jarduera:	
Azalpena	
Azalpena	
Azalpena	
2. jarduera:	
Azalpena	
Azalpena	
Azalpena	
3. jarduera:	
Azalpena	
Azalpena	
Azalpena	
4. jarduera:	
Azalpena	
Azalpena	
Azalpena	
Material suntsikorra	
Gastuak, guztira	

A5

KLAUSTROAREN AKTA

..... ikastetxeko Irakasleen Klaustroak, 2013ko aren ... (e)(a)n egindako bilkuran, 2013ko otsailaren 27ko Aginduaren bidez iragarri diren Eskolako Agenda 21 programak garatzeko deialdiaren baldintzei jarraituz, eta haiek abiarazteko legez ezarritako eskakizunak betez, adierazten du irakasle guztiek aurkeztu den Eskolako Agenda 21 proiektuaren berri badutela, proiektu horretan bildutako jarduera guztiak ere ezagutzen dituztela, eta, parte-hartzaile gisa, ikastetxearen barne-antolamendurako proiektu horrek ekar ditzakeen ondorioak bere gain hartzen dituztela.

.....(e)n, 2013ko ren ... (e)an.

Ikastetxeko idazkaria

Ikastetxeko zuzendaria

(lzenpeak eta zigilua)

A6

ORDEZKARITZA-ORGANO GORENAREN AKTA

..... ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren, 2013koaren (e) ... (a)n egindako bilkuran, bere funtzionamendurako lege ezarritako baldintzak betez, eta Eskolako Agenda 21 programaren deialdiaren baldintzei jarraituz (2013ko otsailaren 27ko Agindua), Eskolako Agenda 21 proiektuari buruz informatua izan da, eta bere oniritzia ematen du.

.....(e)n, 2013koren ... (e)an.

Ikastetxeko idazkaria

(Izenpeak eta zigilua)

Ikastetxeko zuzendaria

Ordezkaritza Organo Gorenaren bilera egiteko baldin badago, honako konpromiso hau sinatu:

Proiektua Ordezkaritza Organo Gorenaren Onespenaren Mende Jartzeko Konpromisoa.

Eskolako Agenda 21 proiektua 2013-2014 ikasturterako onartzea Ordezkaritza Organo Gorenaren hurrengo bilera-egunerako gai-zerrendan sartuko da. Onespenaren akta ekainaren 14a baino lehen bidaliko da Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzara.

.....(e)n, 2013koren ... (e)an.

Ikastetxeko idazkaria

(Izenpeak eta zigilua)

Ikastetxeko zuzendaria

A7

BAIMEN-ESKABIDEA, 2013-2014 IKASTURTEAN AGENDA 21 PROIEKTUA GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEAN AURKEZTUTAKO PROIEKTUARI ALDAKETAK EGITEKO DENA

Zentroa:
Hezkuntzako kodea:
Udalerria:
Lurraldea:

Goian adierazitako ikastetxeak, 2013-2014 ikasturtean Eskolako Agenda 21 Proiektua garatzeko egindako laguntza-eskabidean, honako gastu hauek sartu zituen:

Erabaki dugu jarduera hau(ek) ez egitea, eta horren/horien ordeaz, beste jarduera hau(ek) egitea:

Aldaketa hori egiteko arrazoia hauxe da:

Horregatik, aurrekontuaren aldaketa hori onartzeko eskatzen dut, idazki honen bitartez. Aldatutako A3 eta A4 inprimakiak ere sartu ditut.

.....(e)n, 2013ko ren ... (e)an.

Izen-abizenak
Ikastetxeko zuzendariaren izenpea eta zigilua

Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza.
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Eusko Jaurlaritza.

2013ko martxoaren 14a, osteguna

B1

JUSTIFIKAZIO-ORRIA

Proiektua amaitzean, 2014ko ekainaren 20a baino lehen bidali

ESKOLAKO AGENDA 21 PROIEKTUA
2013-2014

Ikastetxearen izena:	
Sozietatearen izena:	IFK:
Publikoa ☐	Pribatu itunpekoa ☐
Hezkuntzako kodea:	
Helbidea:	
Tel.:	Faxa:
E-maila:	
Lurraldea:	Udalerria:
Herria:	Posta-kodea:

Proiektuaren izenburua:	
Proiektuaren gaia	Airea, ura, lurzorua
	Natur baliabide eta hondakinak
	Biodibertsitatea
	Lurralde-oreka, mugikortasuna
	Klima-aldaketa
	Bestelakoak
Koordinatzailearen izen-abizenak:	
E-maila:	Emandako diru-laguntza:

Izen-abizenak
Ikastetxeko zuzendariaren izenpea eta zigilua

.....(e)n, 2014ko ren ... (e)an.

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

Eusko Jaurlaritza.

Izaera Pertsonaleko Datuak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, eskatzaileei jakinarazten zaie ematen dituzten datuak fitxategi batean bilduko direla. Fitxategi horren helburua da diru-laguntzen deialdi hau eta gaiarekin lotutako beste edozein administrazio-espeditente ere kudeatzea. Fitxategiaren arduraduna Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza da. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubideaz sail bereko Zerbitzuen Zuzendaritzan baliatu ahal izango da. Horretarako, helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea, 1-01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Erantsi beharreko dokumentazioa.

- ☐ 1.– B1 inprimakia: Justifikazioa.
- ☐ 2.– B2 inprimakia: Proiektuan parte hartzen dutenen laburpen fitxa.
- ☐ 3.– Proiektuaren memoria, B3 eranskineko gidoiaren arabera (euskadi.net-en eta ingurugeletan eskuragarri dauden ereduak ildoak eta epeak eskainiko dituzte), eta proiektuan sortutako materialen kopia bat, ahal izanez gero euskarri informatikoan. Memoriaren kopia bat, bai eta sortutako materialena ere, kasuan kasuko Ingurugelara bidaliko da.
- ☐ 4.– B4 inprimakia: proiektuko eduki ekonomikoko jarduerak.
- ☐ 5.– B5 inprimakia: datu ekonomikoak.
- ☐ 6.– B6 inprimakia: proiektu honetarako jasotako diru-laguntzei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- ☐ 7.– Jatorrizko fakturak edo kopia konpultsatuak, gutxienez diru-laguntza publikoen bitartez lortutako zenbatekoari dagokion gastua egiaztatzen dutenak.

B2

IRAKASLEEN PARTE-HARTZEAREN LABURPEN FITXA

Proiektuaren koordinatzailea						
NAN	Izena	1. abizena	2. abizena	Sexua		Jardungo den ordu kopurua (*)
				G	E	

G: gizonezkoak.

E: emakumezkoak.

Talde sustatzailea (koordinazio-lanetan 30 orduz edo gehiagoz jardundako pertsonak bakarrik erantsi)						
NAN	Izena	1. abizena	2. abizena	Sexua		Jardungo den ordu kopurua (*)
				G	E	

G: gizonezkoak.

E: emakumezkoak.

(*) Proiektuan jardun den ordu-kopurua guztira (ikastaroko guztizko kontaketa).

B3

MEMORIA

Ahal izanez gero, informatika-euskarrian ere aurkeztu eta kasuan kasuko ingurugelara igorri beharko da.

Ingurugelek, era berean, amaierako memoria egiteko beharrezko den dokumentazioa emango dute.

Memoria egitean, honako hau hartu beharko da kontuan:

Proiektuaren deskribapena eta ebaluazioa.

- a) Ingurumen Batzordearen osaera.
- b) Diagnostikoa egiteko erabilitako prozeduren deskribapena, proiektuaren hiru ardatz nagusietan oinarrituta, hots: partaidetza, kudeaketa eta curriculum-berrikuntza. Diagnostikoaren ondorioak.
- c) Hobetzeko helburuak, ebaluazio-adierazleak eta Ekintza Planaren deskribapena.
- d) Ekintza-Plana abiaraztea.
- e) Udal-foroetan izandako partaidetza.
- f) Proiektuaren ebaluazioa (Eskolako Agenda 21, jarduera osagarriak), aukeratutako adierazleen arabera (adierazleak banan-banan azaldu, bakoitzari buruzko informazioarekin), eta hura curriculumean sartzeko hartutako erabakiak, hurrengo ikasturteei begira.
- g) Proiektuan erabilitako materialen dokumentazioa erantsi.

B4

PROIEKTUKO EDUKI EKONOMIKOKO JARDUERAK

Bisita eta egonaldiak.

Zk.	Kategoria (*)	Ekipamendu edo espazio bisitatuak	Herria eta lurralde historikoa	Maila edo kurtsoa	Ikasle-kopurua	Aztertutako gaia
1						
2						
3						
4						

(*) Kategoriak: I.1.– Egonaldiak; I.2.– Bisitak.

Egindako jarduerak (ez zerrendatu berriz bisita eta egonaldiak).

Zk.	Kategoria (*)	Jarduera	Neurtutako parametroa	Eraitza

(*) Kategoriak:

- II.– Kudeaketa-hobekuntza (energetikoa, ura, mugikortasuna, hondakinak, zarata, eskola-baratzeko inbertsioak).
- III.– Motibazioa-sentsibilizazioa-partaidetza-koordinazioa-komunikazioa.
- IV.– Zentroko langileen prestakuntza.
- V.– Tailer didaktikoak.

B5

DATU EKONOMIKOAK (BALANTZEA)

2013-2014 proiektuaren guztizko gastua:

A) Behin betiko sarrerak	Zenbatekoa
1.- Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza	
2.- Beste diru-laguntza publiko batzuk	
3.- Beste sarrera batzuk	
Sarrerak, guztira	

B) Egindako gastuak	Zenbatekoa
1. jarduera:	
Azalpena	
Azalpena	
Azalpena	
2. jarduera:	
Azalpena	
Azalpena	
Azalpena	
3. jarduera:	
Azalpena	
Azalpena	
Azalpena	
4. jarduera:	
Azalpena	
Azalpena	
Azalpena	
Material suntsikorra	
Gastuak, guztira	

B6

PROIEKTU HONETARAKO JASOTAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO
ADIERAZPENA

.....jaunak/andreak,
..... ikastetxearen legezko ordezkariak,
..... proiekturako, hau

ZIURTATZEN DU (adierazi eta bete aukera zuzena):

☐ Erakunde honek EZ duela jaso inolako diru-laguntzarik proiektu honetarako.☐ Erakunde honek diru-laguntzak jaso dituela proiektu honetarako.

Erakunde publikoa	Eskatutako zenbatekoa	Jasotako zenbatekoa

☐ Erakunde honek proiektu hau egiteagatik honako diru-sarrera hauek lortu dituela.

Azalpena	Guztira

Eta hala jasota gera dadin, dagozkion ondorioetarako, honako hau sinatu dut

.....(e)n, 2014ko ren ... (e)an.

Legezko ordezkariaren sinadura.

B7

Euskal Autonomia Erkidegoari zuzendutako idazkiak udal-erregistroetan aurkezteko lankidetzahitzarmena izenpetu duten udalen zerrenda (2012ko azaroaren 20koa).

Arabako Udalak.

Alegría-Dulantziko Udala.
Arraia-Maeztuko Udala.
Arrazua-Ubarrundiako Udala.
Asparrengo Udala.
Aiarako Udala.
Mañuetako Udala.
Barundiako Udala.
Bernedoko Udala.
Elciegoko Udala.
Bilarko Udala.
Iruña Okako Udala.
Iruraiz-Gaunako Udala.
Kripango Udala.
Lantziegoko Udala.
Legutioko Udala.
Laudioko Udala.
Oyón-Oiongo Udala.
Peñacerrada-Urizaharreko Udala.
Erriberagoitiko Udala.
Erribera Beitiko Udala.
Samaniegoko Udala.
Donemiliagako Udala.
Gaubeako Udala.
Eskuernagako Udala.
Zigoitiko Udala.

Bizkaiko Udalak.

Ajangizko Udala.
Amorotoko Udala.
Aulestiko Udala.
Basauriko Udala.
Bermeoko Udala.
Busturiako Udala.
Durangoko Udala.
Eako Udala.
Elorrioko Udala.
Erandioko Udala.
Ermuko Udala.
Etxebarriko Udala.
Gamiz-Fikako Udala.
Güeñesko Udala.
Karrantza Haraneko Udala.
Kortezubiko Udala.
Leioako Udala.
Lekeitioko Udala.
Lezamako Udala.

Mendexako Udala.
Mundakako Udala.
Muskizko Udala.
Muxikako Udala.
Nabarnizko Udala.
Ortuellako Udala.
Otxandioko Udala.
Plentziako Udala.
Sopuertako Udala.
Sukarrietako Udala.
Zaldibarko Udala.
Zeanuriko Udala.
Zierbenako Udala.

Gipuzkoako Udalak.

Altzoko Udala.
Andoaingo Udala.
Anoetako Udala.
Antzuolako Udala.
Aretxabaletako Udala.
Arrasateko Udala.
Azkoitiko Udala.
Azpeitiko Udala.
Berastegiko Udala.
Berrobiko Udala.
Eibarko Udala.
Eskoriatzako Udala.
Ezkio-Itsasoko Udala.
Gabiriako Udala.
Hernialdeko Udala.
Ibarrako Udala.
Idiazabalgo Udala.
Irungo Udala.
Irurako Udala.
Lazkaoko Udala.
Legazpiko Udala.
Legorretako Udala.
Leintz-Gatzagako Udala.
Lezoko Udala.
Lizartzako Udala.
Olaberriako Udala.
Ormaiztegiako Udala.
Urnietako Udala.
Urretxuko Udala.
Zegamako Udala.
Zumarragako Udala.